

Jaiotzak, heriotzak eta hazkunde begetatiboa. Euskal Herria

Definizioa

Euskal Herrian urtebeteren buruan jaiotakoen eta hildakoen berri ematen du adierazle honek.

Horrez gain, hazkunde begetatiboa ere kalkulatu da adierazle honetan: jaiotzen eta heriotzen arteko aldea. Hazkunde begetatiboak edo naturalak bizirik jaiotakoen eta heriotzen arteko kenduraren ondorio hutsez gertatzen den biztanleriaren igoera edo jaitsiera adierazten du, migrazio mugimenduak aintzat hartu gabe.

Hedadura

Euskal Herria, EAE, Nafarroa, Iparraldea, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia.

Aldagaiak eta kategoriak

- **Jaiotzak:** eremu jakin batetan urte baten buruan jaiotako haur kopuru absolutua.
- **Heriotzak:** eremu jakin batetan urte baten buruan hildakoen kopuru absolutua.
- **Hazkunde Begetatiboa edo naturala:** jaiotakoen eta hildakoen arteko aldea (jaiotzak – heriotzak)

Iturria(k)

Datuak hiru estatistika institutu ofizialek emandakoak dira (EUSTAT, INE eta INSEE). Datuen bilketa eta bateraketa lana Gaindegiak (Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako Behategia) egiten du, eta guk haien webgunetik jasotzen ditugu datuak.

Jaiotzen eta heriotzen estatistikak

Iturriaren ezaugarriak

Jaiotzen eta heriotzen estatistikak **zentsuek edo erroldek** aldi jakin baterako ematen duten informazio estatikoetatik jasotzen dira.

Eragiketaren arduraduna

EUSTAT (EAE), INE (Nafarroa) eta INSEE (Iparraldea).
Informazioaren bilketa: Gaindegia

Lehenengo datua eta maiztasuna

Maiztasuna: urterokoa
Lehenengo datua: 2000

Informazio osagarria

Argitalpenak eta txostenak

Datuak:
<https://www.datuak.net/>